

© ISTOCKPHOTO.COM/GUENTERGUNT


DALLOL

koloreen oasia

ETIOPIAREN IPAR-EKIALDEAN, AFAR TRIANGELUAN, Danakil desertuaren erdian, koloreen oasi hau dago: Dallol sumendia.

Munduan altitude txikiena duen sumendia da, itsaspekoak alde batera utzita. Inguruko gatz-lautadetatik 60 bat metro altxatzen da, baina itsas maila baino 45 m beherago dago. Eta munduko lekurik beroenetako bat ere bada, urteko batezbestekoa 35 °C da, eta ohikoak dira 45 °C-tik gorako tenperaturak.

1.000 m-ko lodierako gatz-metaketa baten gainean dago sumendia. 1926an izan zen azken erupzioa, eta 30 bat metroko diametroa duen kraterra sortu zen. Gaur egun, sumendiaren jarduera hainbat iturburu termaletan gauzatzen da. Iturburu horietatik lurpeko urak ateratzen dira, gatzaz beterik. Ura lurrundutakoan kristalizatu egiten dira gatz horiek, eta kolorez beteriko paisaia osatzen dute: berdea, horia, zuria, gorria. ●





IGNACIO BENVENUTY



IGNACIO BENVENUTY/BANCO DE IMAGENES GEOLOGICAS



IGNACIO BENVENUTY/BANCO DE IMAGENES GEOLOGICAS



© ISTOCKPHOTO.COM/GUENTERGUNI